



Zer arrisku dago?

- Hona eraikinetako teilatuetan eta estalkietan lan egiten denean izaten diren arriskurik ohikoenak:
 - ✓ Maila berera erortzea.
 - ✓ Beste maila batera erortzea.
 - ✓ Objektuak erortzea.
 - ✓ Objektuak zapaltzea.
 - ✓ Kolpeak edo ebaketak, objektuek edo tresnek eragindakoak.
 - ✓ Neurritz gaineko esfortzuak.
 - ✓ Muturreko tenperaturak jasatea.
 - ✓ Kontaktatu elektrikoekiko eraginpean egotea.
- **BESTE MAILA BATERA ERORTZEA** da kezkarria, lesio larriak eragin ditzakeelako. Langileak leku hauetatik eror daitezke, besteak beste:
 - ✓ Teilatura edo estalkira sartzeko eskaileratik.
 - ✓ Teilatutik edo estalkitik patioetara, kalera, eta abar.
 - ✓ Ekipoetatik eta instalazioetatik (dorreak/antenak,...).
 - ✓ Teilatutxoetatik eta estalkietatik...

Prebentzio-arau orokorrak

- Lana hasi aurretik ikusatu teilaturako edo estalkirako sarbidea. Teilaturako edo estalkirako irteera segurtasunez planifikatu beharko da hasieratik. Horretarako, beharrezkoa izanez gero, ainguraketa-plakak jarri beharko dira barnealdean. Teilatuan egin beharreko edozein lana hasi aurretik ezarri beharreko neurri nagusienetariko bat da, hain zuzen, ainguraketak eta bizi-linea ziurtatuak jartzea, haien bidez altuera jakin batetik erortzearen aurkako babes-elementuei eusteko; ahaztu gabe babes kolektiboko neurriak lehenetsi behar direla banakakoen aldean.
- Ez egin lanak hezetasuna dagoenean, goizean goiz, euria ari duenean, haizea dabilenean, eta, oro har, eguraldi txarra dagoenean.

- Irten aurretik egiaztatu nola dauden banakako babesgarriak. Babesgarrien elementu desberdinak egiaztatzeko eta egoera onean mantentzeko errutina bat ezarri, fabrikatzailearen jarraibideei jarraikiz. Beharrezkoa izanez gero, eskatu aditu baten laguntza.
- Egiaztatu estalkian ainguraketak daudela, eta aldizka berrikusi egin direla. Ez badakizu nola dagoen elementu bat, ez lotu zure burua elementu horri.
- Teilatuaren edo estalkiaren gainean egon edo ibili aurretik, ezarri hori egiteko bide bat. Pasabideak erabili, argi-zulo edo estalki hauskorretan ibili behar izanez gero (fibrozementuz, beira armatuz edo armatu gabeko beiraz, arbelez edo teilez egindako teilatuak, ...). Ez ahaztu: babes-neurri kolektiboak (barandak, aldamiok, ...) lehenetsi behar dira banakakoen aurrean.
- Kontu handiagoz ibili, honelakoren bat gertatuz gero:
 - ✓ Teilatua malda handikoa bada.
 - ✓ Teila arbelezkoa bada, edo labainkorra.
 - ✓ Teilatuaren isurialdean goroldioa edo bestelako materia organikoa pilatuta badago, eta, hori dela eta, haien gainean ibiltzea arriskutsua bada.
- Ahal dela, ez igo bakarrik teilatura. Baina egitekotan, ezarri bakarka lan egiteko protokoloa, zeinek beste pertsona batekin aldizka kontaktatzea barne duena. Jakinarazi bete beharreko ibilbidea, eta aldaketak egonez gero, eman haien berri.
- Beharrezkoa ote den prebentzio-baliabidea baloratu, arrisku-egoerak dirauen bitartean prebentzio-neurriak betetzen direla zaintzeaz arduratu dadin.
- Ahal den neurrian, burutu osagaiak muntatzeko lanak erortzeko arriskua dagoen gunetatik kanpo.
- Lan-eremua ordenatua, garbi eta ondo antolatuta eduki, estropezua ez egiteko, eta ez erortzeko.

- Esku-eskailerak egonkor jarrita daudela, eta ez labaintzeko moduan, egiaztatu beharko da, baita une batean erabiltzen direnean ere. Sarbide bezala erabiltzen badira, gainditu beharreko altuera baino metro bat altuagoak izan beharko dute. Gainbegiratu esku-eskailerak: ez labaintzeko zapatak izan beharko dituzte; artazi-forma dutenek nahi gabe ez irekitzeko sistema bat eduki beharko dute.
- Gogoratu esku-tresna elektronikoek ezin hobeto egoteaz gain, isolamendu bikoitza eduki behar dutela. Tresna horiek elektrizitate-panel batean konektatuta egongo dira; bada, egiaztatu ezazu panel horrek etengailu diferentziala eta etengailu magnetotermikoa dauzkala.
- Lan mota hauek egiteko behar besteko trebakuntza eduki behar dute langileek, eta ezagupen teoriko-praktikoak ere bai. Antenista aritzeko, oso garrantzitsua da garaiera handietan egin beharreko lanetan prestakuntza espezifikoa izatea.
- Laneko arropa eroso erabili. Oro har, ehun arina eta malgua duena, metalezko elementurik gabea, kontaktu elektrikoa izateko arriskua saihesteko.

Banakako babes-tresnak

- Altueratik erortzearen aurkako banakako babesgarriak.
 - ✓ Erorketen aurkako sistemak (erorketen aurkako arnesak, konektoreak, energia zurgatzeakoak, ainguratze-elementuak, erorketen aurkako gailu irristagarri edo erretraktalak,...).
- Banakako babesgarri osagarriak.
 - ✓ Segurtasun-kaskoa, kokospeko uhal eta guzti.
 - ✓ Segurtasun-eskularruak.
 - ✓ Segurtasun-botak.



Bestelako prebentzio-neurriak

- Ahal den neurrian, dorretxo garaiak kenduko dira, eta ez dira erabiliko haietatik igotzeko; horrelako dorretxoen ordez, altuera gutxiagoko mastak jarriko dira.



- Sabai-leihotik edo sarbideetik ahal den gertuen jarriko da antena, beti ere horrela egiteko behar diren baldintza teknikoak egonez gero.
- Saiatuko da kable-zorrotenak eraikinen barruko aldetik egiten, teilatu-hegalera gerturatu beharrik ez izateko fatxadako kableak maneiatu behar direnean.



OSALANen funtsezko lanetariko bat da, hain zuzen, laneko segurtasuna eta osasuna hobetzen laguntzea, gai horiei buruzko informazioa eta ezagutza eskainiz, lan-arriskuak prebenitzeko egiten dituen argitalpenen bidez.

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

José Atxotegi 1
01009 Vitoria-Gasteiz
Telf.: 945.01.68.00
Fax: 945.01.68.01
Email: osalancatga@ej-gv.es

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita bidea z/g (Basatxu mendia)
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Telf.: 94.403.21.79
Fax: 94.403.21.07
Email: osalancatba@ej-gv.es

GIPUZKOKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo bidea z/g
20012 Donostia
Telf.: 943.02.32.62
Fax: 943.02.32.51
Email: osalancatdo@ej-gv.es

www.osalan.euskadi.eus

Segurtasun- eta osasun-baldintzak ANTENISTEN lanetan



OSALAN
Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO